



L. JUAREZ

"Esperientzia bakarra da"

Distantzia luzeko triatloia egin du Guillermo Trombottik Gasteizen / 10

Txokoetan hamaika algara, jolas eta solas

Udako Txokoen haur eta gaztetxoek bizipen ugari bildu dituzte lehen asteetako ekintza eta irteeretan / 6-7

Ikasturteko azken ohiko udalbatzarrean onartu dute Atsobakar zentroa aldundiari doan uztea / 2

Kanpinaurre giroa hasi da: hiru urteko legealdia baloratu du PSE-EE gobernuko alderdiak / 3

Kale kontzertuek eta antzerkiek beteko dute Lasarte-Oriako uztaileko kultur agenda / 4

Autobus gidariek lau eguneko greba bertan behera utzi dute, patronalarekin akordioa lortu ostean / 5

Arteaga II.a eta Albisu San Fermin torneoko finalaren atarian geratu dira, maila ona erakutsita / 11

Nahia Zudairek Igeriketa Egokituko Europako Txapelketan lehiatuko du Dublinen, abuztuan / 12

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586 
www.electricidadarregui.com



'Iritsi da beroa! Zatoz gure haizagailu aukera ezagutzera!'



Zutikako eta mahaiko haizagailuak
• Urrutiko kontrol eta aire-gozagarriarekin
• Oszilatzaileak, abiadura ezberdinak
• Isilak



*Eta udan...
jan exetrik kanpo!*



Kusle gutxi izan ziren astearteko ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Ikasturteko azken batzarra, azkar batean

Adinduen egoitza aldundiari doan uztea onartu dute aho batez, besteak beste. Udaltzain kaporalen plusen kopuruaren gaia atzeratu egin dute. Eztabaida bakarria kredituen aldaketarekin piztu da: Uzturre eta San Martzial plazetako obren aurrekontua igo egin da

Adrian Garcia

Ikasturteko azkenengo ohiko udalbatzarra guztietan laburrena izan da. Ordu laurden eskasean ebatzi dituzte zinegotziek esku artean zituzten gaiak. Abuztuan ez dago batzarrik, eta, beraz, iraileko bigarren asteartean egingo dute hurrengo ohiko saioa. Halere, ez dituzte lanak guztiz bukatu: gaur ezohiko udalbatzarrera deitu dute, hiriko garraio publikoaren zerbitzuaren kontratu aldaketa ebazteko.

Garrantzia handirik gabeko gai batzuk landu zituzten asteartean; beharbada garrantzitsuena zena, udaltzainen eta kaporal agenteen gauetako eta jaietako plusei dagokion kopuruaren ingurukoa, beste baterako atzeratzea erabaki dute, adituen txosten bat falta delako. Ikus-entzule aldetik ere pertsona bakan batzuk azaldu dira, eta inork ez du parte hartu galdera eta erreguen puntuan.

Ohi bezala, aurreko udalbatzarren aktak aho batez onartu dituzte. Bigarren puntuan 2018ko ekitaldian

kredituak aldatzeko bideratu diren dosierren berri eman du Jesus Zaballos alkateak, eta, hurrengoan, kreditu gehigarrien bidez horiek moldatzeko proposamena bozkatu dute. PSE-EE eta PPko zinegotziek alde bozkatu dute, zortzi guztira, eta gainerako guztiak, EH Bildu, ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Pude eta EAJ abstenitu egin dira (beste horrenbeste boto). Arkatz Naya ADLOPeko bozeramaileak eman du erabaki horren arrazoa: "Ez gaude diru sortaren aldaketaren kontra, baina hirigintzari dagokionean legeak onartzen duena baino gehiago moldatu da".

Uzturre eta San Martzial

Alkateak azaldu du gertatutakoa, Xabier Egea udaleko idazkariaren laguntzarekin. Uzturre eta San Martzial plazen lanetako aurrekontua igo egin da. "Udal gobernuak ez du ezer jakin, obraren zuzendariak bere kabuz hartutako erabakia izan baita.

Onartu du hutsegitea, eta hemendik aurrera idazkariak eta alkateak onetsi beharko dute aurrekontua igotzea", esan du Zaballosek. Egeak ere azalpenak eman ditu: "Legezko prozedura ez da bete, baina legez kanpoko ez da aurrekontua moldatzea".

Aldundia eta Atsobakar

Bestetik, udalbatzarrak aho batez onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiari adinduentzako egoitza doan uztea. Azkeneko gaia ez dute eztabaidatu ere egin; udaltzainen eta kaporal agenteen gauetako eta jaietako plusen kopuruei buruz ziren hitz egitekoak, baina "mahai gainean" utzi dute, txosten bat falta delako.

Galdera eta erreguen puntuan, eskualdeko autobus zerbitzuen murrizketak izan dituzte hizpide. Zaballosek jakinarazi du aldundiaren kontseilu gobernuak onartu duela proiektua, eta helegiteak erantzun dituela egunotan.



Jon Antxordoki eta Estitu Alkorta, azalpenak eskatzen. TXINTXARRI

Udaltzaingoen hizkuntza eskakizunak, "legez kanpokoak"

Udaltzaingoko kaporal agenteei eskatutako euskara maila apaldu du udalbatzarrak, adituen irizpideen aurka

Txintxarri

Ekaineko udalbatzarrean euskararen aurkako erabakia hartu zuen udalbatzarrak: gehiengoak onartu zuen udaltzain kaporal izateko hizkuntza eskakizuna jaistea. Modu horretan, hirugarren profila eskatu beharrean, soilik bigarrena beharko dute. PSE-EEK, ADLOPek eta PPk onartu zuten mozioa. EAJ eta EH Bildu izan ziren aurka bozkatu zuten bakarrak.

Agente kaporalen bost postu sortuko ditu udalak. 2013ko ekainean udalbatzarrak erabaki zuen hirugarren profila eskatzea, eta Euskara Zerbitzuaren txostenak aurkeztu zituen. Orduan, ordea, bestelakoa zen udalbatzarraren osasera; EH Bilduk gobernatzen zuen.

Prozedura

Jon Antxordoki EAJko bozeramaileak ohar bidez azaldu duenez, legez kanpoko da profilarren aldaketa, ez delako behar bezala arrazoitu. Haren arabera, Administrazio Publikoen Prozedura legea urratu da, eta hori arrazoitzeko txostena aurkeztu du Lasarte-Oriako Udaleko erregistroan.

Jesus Zaballos alkateak ekaineko udalbatzar hartan argudiatu zuenez, udalbatzarraren osasera aldatu da, eta, beraz, "arrazoi politikoengatik" beharatu dute udaltzain kaporalen hizkuntza eskakizuna. Ez zituen kontutan hartu euskara normalizatzeko ahaleginak, ezta

Hizkuntza Politika Sailburuaren gomendioak.

EAJk ekaineko udalbatzarrean eskatu zuen gaia atzeratzea, prozedura legea urratu ez zedin. Halere, ez zuten proposamena onartu, eta azkenean apaldu zituzten kaporal agenteen hizkuntza eskakizunak. ADLOPek argudiatu zuen udaltzainekin hitz egin zuela, eta "praktikotasunagatik" adostu zuela soilik bigarren profila eskatzea.

Helegitea

Orain, EAJk aurkeztutako helegitean ondokoa arrazoitzen du: 2013an kaporal agenteen zereginak aztertu zituela Euskara Zerbitzuak, eta txosten tekniko batean ondorioztatu zuela lanpostu horri zegokion hizkuntza eskakizuna hirugarren profila zela. Gainera, txosten horretan arrazoitutakoa berresten du Hizkuntza Politika Sailburuak; herri administrazioetan euskara normalizatzeko eta indartzeko irizpideak finkatuta ditu Eusko Jaurlaritzak.

Antxordokik salatu duenez, udalbatzarrean hartutako erabakiak legez kontrakoak izan dira, irizpide teknikoekin hartutako erabakia arrazoitu gabe irauli delako. "Ezinbestekoak diren txostenak eskatu gabe hartu da erabakia". Azken udalbatzarrean ere gaia atera du EAJko bozeramaileak, eta alkateak erantzun dio helegiteak aztertzean erantzun dionela.



Jesus Zaballos alkatea eta Iñaki Mujika Lasarte-Oriako sozialisten idazkari nagusia, prentsaurrekoan. TXINTXARRI

Udala, kirol guneagatik epaiketara joateko prest

PSE-EEK hiru urtean egindako lanaren balorazioa egin du; hauteskunde programaren %80 bete dute. Proposamen batzuk ezingo dituzte bete, "ezinezkoak" zaizkielako. Esaterako, Atsobakarreko kirol gunea egiteko Usurbilgo Udalaren lizentziak falta zaizkie

Adrian Garcia

Urtebete falta da udal eta foru hauteskundeetarako, baina dagoeneko alderdiak hasiak dira prestatzen. Azken asteetan hainbatek eskuorriak banatu dituzte postontzietan, eta hemendik aurrera hasiko dira boto-emaileak erakartzeko estrategiak aurrera eramaten. PSE-EEK legealdi honetako hiru laurdenen balorazioa egin du. Hitz emandakoaren %80 bete dute hiru urtean, Jesus Zaballos alkatea eta Iñaki Mujika Lasarte-Oriako sozialisten idazkari nagusiaren arabera. Alegia, hauteskunde programako 147 proposamenetatik 118 bete dituzte; beste hogeitun hamar ari dira gauzatzen, eta bederatziretaz geratzen dira egiteko. Batzuk ezingo dituzte bete, "udalaren ardura ez diren kanpo arazoengatik". Atsobakarreko kirol gunea da horietako bat. "Usurbilgo Udalaren baimenak behar dira, baina ez badizkigute ematen, epaiketara joango gara".

Mujikak azaldu duenez, "proposamen egingarriak" dira PSEk aurreko hauteskundeetan egindakoak, horregatik bete ahal izan dituzte gehienak. Besteak beste, aipatu ditu Zabaletako frontoia, Uistin kaleko berrurbanizazioa, Basaundi bailarakoa, Jaizkibel plazakoa eta etxebizitzaren alokairu soziala. "Gardentasuna da gure obsesioa, eta hurrengo hauteskunde programa ere errealista izango da. Politika gainbeheran dagoen uneotan, merezi duela erakutsi behar dugu".

Oposizioaren aurka

Zaballos alkatearen ustetan, herritarren "balorazioa positiboa da". Oposizioarentzako hitzak

"PROGRAMA GEHIENA BETE DUGU, PROPOSAMEN ERREALAK EGITEN DITUGULAKO"

ere izan ditu, batez ere EH Bildurentzat. "Hasi dira gauzak mugitzen, esaten ez dugula bete hitz emandakoa. Agian ezjakintasunarengatik izango da. Lau urte gobernatzen egon arren, ez dute administrazio publikoa ezagutzen".

Atsobakarreko kirolgunea

Badira programan txertatu baina beteko ez dituzten promesak. Zaballosen esanetan, batzuk zentzua galdu dutelako. Beste batzuk, ordea, ezinezko egin zaizkielako. Atsobakarreko kirolgunea da horietako bat. "Usurbilgo Udalak xantaia egin zigun, aldundiari bide gorri bat egiteko eskatu ziezaiogun". Bide hori baztertuta, Usurbilgo partzelak erabili gabe osatu dute proiektua. Baina Usurbilen baimena jasotzea falta zaie. Zaballos: "Propio ari dira luzatzen. Herriko EH Bildurekin ari dira komenientzian. Baina irailerako ez badigute erantzun, epaiketara joango gara".



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Saltoka saltoka

Berriki amaitu zaizkigu herriko jai nagusiak. Edozein jai edo ekitaldiko edizio bakoitza amaitzen denean (Zinemaldia, Jazzaldia, sanferminak...) antolatzaileek berehala esan ohi dute hurrengo urtekoari begira jarrita daudela, bukaeraren goibela argitu nahian edo! Ez zait halakorik gertatu sanpedroak amaitzerakoan. Ostegun, ostiral eta larunbat gauaren ilunpean ibili ondoren, egun argitan gozatzeko programak jasotako ekitaldietan egon ondoren, barraketan sos batzuk "inbertitu" ondoren, ez zait berehala hurrengo urteko jaiekin pentsatzen jartzeko indarririk geratu. Hori iruditzen zait gainera naturalena. Dena ematen duenari atsedena egokitzen zaio, ez joandako saltsaren berrizmina.

Nolanahi ere, hor ibili gara dagoeneko 33 urte gurekin daramatzen bluxa soinean hartuta saltoka saltoka. Adinean aurrera egin dute nire kuadrillakoek, eta nik ere bai haien pare, baina gorputzean besterik ez da somatzen joandako denboraren zantzuren bat. Adimenez, animoz eta gogoz aberats gaude, kantuak dioen bezala, eta ez dugu gertu ikusten errendiaraziko gaituen sanpedroetako ediziorik. Hamaika aldiz kontatu izan dudana bezala, orain gutxioko ekainaren 28etako batean, Intza elkartean afaritan, gutako batek galdetu zuen ea noiz amaituko zitzaigun festarako grina. Elkarri begiratu eta erantzuna garbia izan zen: herriko jaiak ez diegu berehala uko egingo, ezta elbarri bagaude ere. Eramango gaituzte afari berezi horretara seme-alabek. Ez dugu gutxiago merezi. Ron iragarki batek esaten zuen bezala: hartuko dugu atsedena...hiltzen garenean.

Hernani bidea itxiko dute, Zabaleta Berriko lanengatik

Aurrera doaz Zabaleta Berriko lanak. Jarraitzeko, ordea, Hernaniko bidea itxiko dute. Lanen zuzendariak TXINTXARRI-ri azaldu dionez, hurrengo astetik aurrera itxiko dute bide hori. Hain zuzen, Pepenea baserria eta Hernaniko muga bitartean egongo da itxita. Baimena eskatu dute dagoeneko udalean, eta jaso bezain pronto itxiko dute errepedea. Ondorioz, astelehenean edo, beranduenez, asteartean ezin izango da errepede hori

erabili. Bide alternatiboak jakinarazteko seinaleak jarriko dituzte.

Hilabete pare bat behintzat egongo da itxita. Lanetako zuzendariak azaldu duenez, baimena iraila bukaera arte eskatu dute, baina litekeena da lehenago amaitzea.

Zabaleta Berri eremuan 28 etxebizitza eraikitzen ari dira, eta beste 60 gehiago hasiko dira laster. Ez dira Lasarte-Oriako dauden obra bakarrak. Zatarainen ere ari dira etxebizitzak eraikitzen, baita Goiegi inguruan ere. Hipodromoko obrak orain gutxi amaitu dira.

Thailandia

NOAOA BIDAIAK

IRTEERA 2019ko MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Peppermin Quartet laukoteak ireki du aurtengo Kultur Kale Zikloko emanaldi sorta. TXINTXARRI

Funk, reggae eta jazz doinuak Tximistarretan

Hainbat musika estilo nahastuz, emanaldi atsegina eskaini du Peppermin Quartet laukoteak Tximistarreta parkean. Aurtengo Kultur Kale Zikloko lehenengo emanaldia izan da. Irail erdialdera arte, beste zazpi kontzertuz gozatuko dute lasarteoriatarrek

Txintxarri

Kultur Kale Zikloak herriko hainbat auzotara eramango du musika uztailean eta irailean zehar. Udalak eta XpressionK ekimenak antolatu dute: zazpi kontzertu programatu dituzte. 4.000 euro gastatu dituzte aurtengo zikloa antolatzen. Arratsaldeko zortzietan hasiko dira musika emanaldi guztiak. Eguraldi txarra egingo balu, emanaldia bertan behera utzi eta beste egun batera aldatuko lukete, beste urte batzuetan egin bezala.

Funk, reggae eta jazz doinuak nahastuz, emanaldi atsegina eskaini zuen Peppermin Quartet laukoteak joan den larunbatean, Tximistarreta parkean. Hainbat herritar gerturatu ziren musika estilo nahasketa bitxiak gozatzera. Aurtengo Kultur Kale Zikloko aurreneko kontzertua izan da.

Bihar izango da bigarrena, Atsopakarren. 70. hamarkadako rock doinuak ekarriko ditu Pig&Kiss talde zarauztarrak.

Aurtengo edizioan berrikuntza nabarmen bat sartu dute antolatzaileek: astegunetan ere kontzertuz gozatu ahaliko dute lasarteoriatarrek. "Asteburuetan bakarrik ez, aste tartean ere emanaldi batzuk programatu ditugu; proba egingo dugu", zehaztu zuen Udaleko Gazteria saileko zinegotzi Txus Alonsok.

Astegunetan ere, musika

Musika emanaldiak erdigunetik ateratzearen aldeko apustua mantendu dutela nabarmendu du Jesus Zaballos alkateak: "Espazio askotara eramaten ditugu kontzertuak; lehenengo ediziotik mantendu dugu ekitaldiak deszentralizatzearen aldeko apustua". XpressionK

AURTEN AURRENEKOZ, ASTEGUNETAN ERE KONTZERTUZ GOZATUKO DUTE LASARTEORIATARREK

ekimeneko kide Jokin Telleriak aipatu du aurtengo taldeen estilo proposamena oso interesgarria dela, eta hainbat musika estiloz gozatuko dutela herritarrek.

Emanaldiak

Uztaila

- **14, larunbata** Pig&Kiss, Atsopak auzoan.
- **18, asteazkena** Lemon & Twist, Okendo plazan.
- **25, asteazkena** Stelium, Zumaburu auzoan.
- **31, asteartea** Indian Feathers, Basaundin.

Abuztua

- **1, larunbata** Kaxeira, Zabaleta auzoan.
- **8, larunbata** Akimbo, Okendo plazan.

Emanaldi guztiak 20:00etan



Jule antzezlan plazaratu du Hortzmuga teatroak Okendo plazan. TXINTXARRI

Hortzmuga teatroaren 'Jule': ametsz gozatzearen garrantzia

Herritarrek Okendo plaza bete dute Hortzmuga teatroak taularatutako 'Jule' kale antzerkiak gozatzeko

Txintxarri

Joan den urteko uztailean herriko kaleak hankaz gora jarri zituzten Hortzmuga teatroko aktoreek, *Femmes* lanarekin. Lau atsoren paperean sartuta, hainbat bihurrikeria egin zituzten Lasarte-Orian zehar, ikus-entzuleen harridurarako.

Antzezlan horrek utzi zuen aho zapore ona kontuan hartu, eta udalak berriz kontratatu du antzerki konpainia. Ostiral arratsaldean aritu ziren, Okendo plazan. *Jule* lana plazaratu zuten. Gaia, oso desberdina: ametsz gozatzearen garrantzia.

Protagonistetako bat eraistear dagoen etxe batean bizi da, baina ez du bertatik joan nahi; betetzeke ditu oraindik hainbat amets. Hor inguruan dabil bueltaka obra zaindari bat: esna dagoen bitartean egiten du amets, familia bilatzen duen bitartean. Kontrakoa gertatzen zaio hirugarren protagonistari; familiaz ahaztu da erabat, eta ez du ametsik egiten. Hiru pertsona horien istorioak elkarlotuz, ametsz gozatzearen garrantzia nabarmendu nahi du Hortzmuga teatroak. Familiako kide guztiei dago zuzendua lana.



USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Festa tradizionalarekin agurra

Usurbilgo Lanbide Eskolara Txiletik joandako ikasle talde batek amaitu du ikasturtea. Fotoboltaika ikasleek sei hilabete igaro dituzte Euskal Herrian. Agurtzeko, Txile eta Euskal Herria arteko elkartruke festa bat egin dute; janari tradizionalak, dantzak eta musikak girotu du jaia. Eraginkortasun energetikoa ikasten ari direnek urrian amaituko dituzte ikasketak.



TSSTko autobus zerbitzuetako langileak protestan. TXINTXARRI

Autobus gidariek bertan behera utzi dute greba

Azken unean hartu dute erabakia, eta, ondorioz, gaur, bihar, hilaren 20ean eta 21an egitekoak ziren grebak ez dituzte egingo. Sindikatuek Avitrans patronalarekin hitzarmena lortu dute. Aldundiak eskualdeko autobus zerbitzuaren proiektua onartu du

Txintxarri

Autobus zerbitzuetako langileak greba egitekoak ziren gaur eta bihar, baita hilaren 20ean eta 21ean. Haatik, atzo arratsaldean sindikatuek jakinarazi zuten, akordioa lortu dute Avitrans patronalarekin, eta bertan behera utzi dituzte lanuzteak. Gipuzkoako 30 autobus enpresa inguru ziren greba egitekoak, tartean TSSTkoak. Ohiko zerbitzua emango dute egunotan.

TSSTko gidariek fronte ugari dituzte kudeatzeko. Bat lurraldeko hitzarmena. Atzo lortutako akordioarekin baretu dute alor hori. LAB, UGT eta CCOO sindikatuek izenpetu dute hitzarmena, baina ELA akordiotik kanpo geratu da. Dietak ordaintzea arautzen zuen testuak sortu zituen desadostasunak. Akordioari buruzko xehetasunak ez dituzte eman orain arte. Halere, sindikatuek ohartarazi dute

aurreakordioan sinatutakoa errespetatzen duela hitzarmenak.

Horrez gainera, itun propioa dute TSSTko gidariek enpresarekin, eta hori negoziatzen ari dira.

Azkenik, Buruntzaldea eta Tolosaldeko autobus zerbitzuak berrantolatzeako proiektu berria onartu du Gipuzkoako Aldundiak. Datozen egunetan argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta orduan jakin ahalko dira nondik norakoak.

Erketz EDTren 50. urteurrena laguntzeko hitzarmena sinatu dute

Mende erdiko ibilbidea ospatzeko ekintzez beteriko urtea izaten ari da taldearentzat. Ekintza horiek diruz lagunduko ditu udalak

Txintxarri

Ruben Arranz Erketz EDTko kideak hitzarmena sinatu du ostiralean, udalean. Dantza taldea 50. urteurrena ospatzen ari da aurten, eta ekintza askorekin osatutako egitarau zabala eskaini die herritarrei.

Horiek aurrera eramatea esfortzu ekonomiko handia izan da taldearentzat, eta laguntzeko asmoz, diru sorta bat gorde du udalak. Antolatutako ekitaldiak

27.450 euroko aurrekontua izan dute guztira, eta 10.000 euroekin lagunduko ditu udalak. 50. urteurrenaren flashmoba, dantza-jantzien moda-desfilea, erromeria, urteurreneko emanaldi nagusia, urteurreneko bazkaria eta San Pedro jaietako ikuskizuna dira babestuko diren ekitaldiak.

Urrian emango dio amaiera dantza taldeak ospakizun urteari; bazkari bat egingo dute.



Erketzen desfilearen une bat. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Kiroldegiko bazkideek, abantailak

Bigarren urtez lankidetzeta hitzarmena sinatu dute Lasarte-Oriako Udalak eta herriko hainbat kirol elkarteek. Lehen urteko emaitzak hobetzeko asmoz heldu diote elkarlanari, eta irailetik aurrera jarriko da martxan.

Yogalarte, Saito Gimnasioa, Miracampes zaldi zentroa eta Koroibos Crosfit kirol zentreek eskaintza bereziak prestatu dituzte, eta kiroldegiko bazkide diren lasarteoriarrek kirol diziplina horiek ezagutu ahal izango dituzte irailetik aurrera.

Guraso elkarten programak diruz lagunduko ditu udalak

Buruntzpe, Landaberri eta Oriartekide guraso elkarteekin lankidetzeta hitzarmena sinatu dute

Txintxarri

41.506 euroko diru sorta banatuko dute ikastetxeetako guraso elkarten artean. Hitzarmenaren bidez, euskararen erabilera sustatzeko programak lagunduko dituzte. Elkarlanean aritzen dira hiru elkarteak.

Buruntzpek 10.130 euroko programa aurkeztu du, eta 7.992

euroko diru laguntza emango dio udalak. Landaberrik 12.400 euroko programarentzat 9.845 euro jasoko ditu, eta Oriartekideri, berriz, 23.669 euro emango dizkiote, 24.209 euroko programari aurre egiteko. Adostutako programen artean daude Irakutrezin, Esazu, Irria eta Irrintzi aldizkariak, Hezitzaileek asko egin dezakete eta Euskaraldia egitasmoak.



TXINTXARRI

Bizikletak garbitzeko gune berria

Lasarte-Oriako bizikletak garbitzeko lehen gunea martxan da. Askatasunaren parkeko komunen ondoan egokitu da. Txirriindulari gehienak hipodromo aldetik sartzen dira herrira, eta bizikleta garbitzeko kokagune aproposena dela uste du udalak. Ur mahuka bat eta bi bizikleta garbitzeko lekua dago. Botoiari sakatzen zaion bakoitzean 30 segunduko ur jarriko izango dute erabiltzaileek.

Abenturez gozatzan

Hamaika ekintza eta irteera egin dituzte Txokoetako haurrek



Pala txapelketan aritu dira Txokoetako gaztetxoak, eta irabazleek saritxoa irabazi dute. TXINTXARRI



Aterpeko dendatara bisita egin dute. Ormazabal loradendan loreak garbitzen eta landatzen egon dira. TXINTXARRI



Entzierroaren aurretik suziria bota dute San Fermin bezperan. TXINTXARRI



Atsotakar zahar egoitzako lagunekin kantuan eta jolasean ibili dira Txokoetako haurrak. TXINTXARRI



Entzierro ederra izan da Okendo plazan. TXINTXARRI



Zabaleta auzoko bizilagunekin altxorraren bila jolasean aritu dira. TXINTXARRI



Astigarragako Sagardo Etxea ere bisitatu dute irteera batean. TXINTXARRI



Ipuin kontaketa saioa egin dute Ttakunenean, eta adi-adi entzun dituzte istorioak. TXINTXARRI

Irteerak, tailerrak, ur-jolasak, ekintza bereziak,... Ttakun Kultur Elkarteko Txokoetako haur eta gaztetxoek jarduerak ez dute etenik. Egunero abentura berri bat da.

Izeba Lili, izeko Mari, aitatxi Manolo, osaba Antxon... Txokoetako familia bereziek ipuinak kontatu dizkiete, eta gaileta gozoak edo esperimenduak nola egin erakutsi. Zezenen aurrean ere lasterka egin dute, San Fermin bezperan. Eta Txikiguayen puzgarriez eta laberintoaz gozatu dute. Gainera, belaunaldien arteko loturak sendotzeko, Atsokabarreko zahar egoitzeko lagunekin eskulanak egin, dantzatu eta jolastu dute. Ederki gozatu dute guztiek, zahar zein gazteek.

HH5 eta LH2 arteko gaztetxoek Aterpea elkarteko dendetara bisitak egin dituzte aste honetan. Jostakirola ekintzaren barruan, ohikoak ez diren kirolak ezagutu dituzte, hala nola, hockeya, akrosport eta kirol egokituak. Honez gain, Urrietako igerilekura eta Astigarragako Sagardo etxera bisitan joan dira.

Zaharrenak batetik bestera dabilta. Txirringa irteera, Gamarrako igerilekuak eta Getaria Zarautz arteko txangoa egin dituzte. Gainera, herriko auzo elkarteekin lanean misio ezberdinak bete behar izan dituzte. Lehengo astean, esate baterako, Zabaleta auzoko lagunekin altxorraren bila ibili ziren.

Baina oraindik bi aste geratzen dira, eta beste hamaika ekintza egiteko dituzte. Txikiek Txokoetako familia bereziaren ikuskizuna izango dute, eta flashmob bat grabatuko dute. Ertainek ere ez dute aspertzeko astirik izango: dantza, antzerkia, igeriketa saioak, Usurbil eta Zubietara irteerak... Zaharrenek, berriz, sukaldaritza saio bereziak egingo dituzte, herriko gastronomia elkarteekin laguntzari esker. Horrez gain, gazteen I. Zinema Lehiaketarako filmak egin, eta bibak irteera ere izango dute.




Eguraldi beroa freskatzeko ur-jolasetan ederki gozatu dute. TXINTXARRI





Aterpearekin elkarlanean, Sasotetako Ana ileapaindegiko eguneroko lana ezagutu dute. TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN

Largian Beheko sei marrazki-zati horietatik bakarra dago irudi nagusitik bertatik hartuta. Zein da ?



Itzala Zein da sateliteari dagokion itzal zuzena?




Margotu

Estralurtarra paseoa ematen ari den bitartean, astronauta espazio-ontzitik atera da. Ikusiko ote du? Margotu itzazu gure laguntxoak.

Bederatzi!

Begira, begira! Peloziri eta Maripurtzil estralurtarrez mozorrotu dira, hori da itxura! Aurkitu itzazu bi irudien artean dauden bederatzi aldeak.



Espaziora!





Ф И С В У А П Р Ш О Л Д Ъ Т Щ З Й К Ы Е Г М Ц Ч Н Я
A B C D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z

Hona hemen Iuri Gagarin, kosmonauta errusiarra. Espaziora bidaiatu zuen lehen gizakia izan zen. Ba al dakizu zer esan zuen mundua han goitik ikusi zuenean? Jakin nahi baduzu, jar ezazu ikur bakoitzaren azpian dagokion hizkia, eta Gagarinien esaldi eder hura osatuko duzu.

Eguzki Sistema

Eguzkiaren eta Jupiterren artean lau planeta daude: **MERKURIO**, **VENUS**, **LURRA** eta **MARTE**. Hain justu, ordena hori jarraitu beharko duzu labirinto honen bide zuzena aurkitzeko. Laukiz lauki joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.



Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Egilea: Garbiñe Ubeda



Guillermo Trombotti, bizikletako sektorean, joan den igandean, Gasteizko distantzia luzeko triatloian. LEONARDO JUAREZ

"Maratoian hasten da benetako lasterketa"

GUILLERMO TROMBOTTI DISTANTZIA LUZEKO TRIATLOILARIA

Guillermo Trombottik Gasteizko distantzia luzeko triatloia osatu du: 3,8 kilometro igeri, 180 bizikletan eta 42 lasterka. Gisa honetako hirugarren proba du Trinko taldeko kideak. "Espero dut gehiago egiteko aukera izatea"

Adrian Garcia

"Esperientzia bakarra da". Eta ez da harritzekoa; 3,8 kilometro igeri, 180 bizikletan, eta amaitzeko, nahikoa ez eta maratoi bat (42 kilometro lasterka). Hirugarrenez egin du Guillermo Trombottik (Rosario, Argentina, 1977) distantzia luzeko triatloia. Joan den igandean osatu zuen erresistentziako proba, Gasteizen. 12 ordu eta 12 minutu behar izan zituen. Ahaleginaren ostean, pozarren eta saltoka ikus daiteke azken metroetan, helmugan grabatutako bideoan. Ez baita nolana hiko erronka. Errekuperatzen dabil aste honetan, oraindik zertxobait

minduta. Baina ez du zalantzarik: "Hurrengo urtean bueltatuko naiz Gasteizera".

Bigarren urtez egin duzu Gasteizko distantzia luzeko triatloia. Zer du proba horrek errepikatzeke?

Izugarria da. Hiri osoak bultzatzen zaitu, denak oso inplikaturik daude triatloiarekin eta probarekin. Esaten dute triatloia hiri dela. Behobia-Donostia lasterketaren giroa arnastu daiteke.

Igandean izan zen proba. Egun batzuk lehenago joan zinen hirira.

Bai, Gasteiz oso ederra da, eta asteburu osoa aprobetxatu genuen familian, turismo pixka bat egiteko.

Nolakoa izan da hirugarren distantzia luzeko proba? Denbora aurreikuspenak bete dituzu?

Espero baino hobeto. Zortzi minutu jaitsi ditut aurreko marka. Horrelako proba batean oso ondo kontrolatu behar duzu zeure burua. Sektore batean indartsuegi bazoaz, litekeena da hurrengoan sufritzea ondorioak. Aurten bizikletan hobeto ibili naiz, baina gero maratoian majo sufritu nuen.

Nola prestatzen da horrelako proba bat? Zenbat denbora behar da?

40 asteko plan bat jarraitu dut. Gorputzak ohitu egin behar du horrelako erresistentzia probetara. Planaren helburua

proba bukatzea da, ahalik eta txukunenen.

Elikadura ere zaindu al duzu?

Ez gehiegi, egia esan. Proba gerturatu ahala saiatu naiz garbiago jaten.

Uribarri Ganboa urtegiaren egin duzue igeri. Lehenengo esfortzua da hori. Nola hartu zenuen igeriketa?

Ez dut oso gustuko igeri egitea, baina eutsi egin behar zaio. 1.900 metroko zirkuitua osatu behar izan genuen bi aldiz, tartean metro batzuk lehorrean eginda. Haize pixka bat zegoen, baina ez dago korronterik; igerileku baten antzekoa da. Proba luzeetan ez dago horrenbesteko aglomeraziorik, taldeak luzatu

egiten dira; ez dituzu horrenbeste kolpe jasotzen. Lehenengo ahalegina da, eta fresko zaude oraindik.

Bigarren sektorea da bizikletarena. Aldapatxo batzuk bazituen ibilbideak, ezta?

Bai, baina ezin dira alderatu hemen inguruko mendateekin. Lasarte-Oria inguruan entrenatzen baduzu, errazagoa egiten zaizu gero leku lauago batera joaten bazara. Hori bai, izugarri polita da ibilbidea, eta ia denentzako egingarria.

Egon dira keza batzuk drafting-aren inguruan. Askok ez omen dute errespetatu gorpila ez hartzearen debekua.

Bai, harritu nintzen; tropeltxo batek aurreratu zidan. Arriskutsua ere bada, bizikleta askok ez baitute balazta akopleetan.

Bizikletako esfortzuak eragina izango zuen maratoia orduan. Zer moduz egin zenuen korrikako sektorea?

Laua da ibilbidea, baina hiri barruan sartzean, bira asko ditu; hori da txarrena. Maratoian hasten dira komeriak. Askok oinez egin behar izaten dute. Eskerrak jende asko dagoela bide bazterrean animoak uneoro ematen.

Iaz Donostiako maratoia 3:12 denboran egin zenuen. Igandeko triatloikoa, berriz, 4:22. Hor ikusten da ordurako gorputzak jasotako zigorra.

Ez du zerikusirik bata bestearekin. Beste kirol bat da. Maratoi normal bateko anoa postuetan ez da inor geratzen, ura hartu eta korrika jarraitzen dute. Distantzia luzeko triatloi batean ohikoa da lasaiago hartzea, minutu pare batez atsedean hartzea, jan eta edateko. Nire ustez, benetako lasterketa hasten da maratoian. Hor ikusten da nola zauden, aurreko sektoreak nola eragin dizun. Erretiratzen diren gehienak korrikako sektorean egiten dute. Ni egon nintzen gelditzeko zorian.

Fisikoki ongi prestatzeaz gainera, psikologikoki ere indartsu egon beharko zara.

Noski. Buruak agintzen du. Oinarri bat izanda, buruak esaten badizu bukatu dezakezula, ia ziur iritsiko zarela helmugara. Arreta piztu zidan: gizon asko ikusi nituen oinez maratoian. Emakumeak, ordea, bat bera ere ez. Agian da indartsuago direlako psikologikoki.

Arteaga II.a, finaletik at soilik bi tantorengatik

Sanferminetako finalaren atarian geratu da lasarteoriatarra, txapelketan maila ona erakutsita. Albisu indartsu baten laguntzaz bigarren partida irabazi zuen, baina tantoen arteko desberdintasunak kalte egin dio. Debuta zuen txapelketa horretan

Txintxarri

Partida zirraragarria jokatu eta irabazi ostean, bazirudien Asier Arteagak finalerako txartela eskuratuko zuela. Baina aurreikuspenak ez dira bete; Iribarria-Zabaleta bikoteak 21-22 irabazi dio Olaizola II.ak eta Imazek osatutakoari. Ondorioz, horiek jokatu dute San Fermin txapelketako finala; 21 tanto behar zituzten Iribarriak eta Zabaletak finalera sailkatzeko.

Arteaga II.ak eta Albisuk partida lehiatua jokatu zuten astelehenean, eta San Fermin txapelketako finalera igarotzeko atea ireki zuten. Olaizola II.a eta Ander Imaz garaitu zuten (17-22).

Bikain aritu zen Lasarte-Oriako aurrelaria, eta ongi lagundu zion atzean Jon Ander Albisuk. Atzelariak eskuinkada indartsuen bidez agindu zuen, eta lau tanto lortu zituen ere pilotakaden bitartez. Arteaga ausart aritu da txapelketan, eta asko parte hartu du. Erremate zorrotzez baliatuz ongi itxi ditu tantoak.

Partida hasieran lortu zuen bikote garaileak errenta handiena (4-12). Olaizolaren gantxoei esker lortu zuten gorriek gero markagailuan hurbiltzea. 16-19 jarri ziren ere.



Asier Arteaga, Olaizola II-Imazen aurkako partidaren. 21 IGUALES

DEBUTOKO URDURITASUNA GAINDITU, ETA AUSART JOKATU DU ASIER ARTEAGAK

Lehen partidako emaitza irauli zuten modu horretan Arteagak eta Albisuk. Larunbatean Iribarria eta Zabaletaren aurka galdu zuten (19-22), partida gris batean. 7-0 hasi ziren gorriak irabazten, baina Arteagak

hasierako urduritasunak gaudituta, partida berdindu zuen, neurri handi batean, Iribarriaren hutsegite nabarmenei esker. Estreinako partida zuen sanferminetan lasarteoriatarrek; nahiz eta akats batzuk egin, ohikoak debuta egiten duen batentzat, maila ona eman zuen aurrelariak.

Ezkurdiak eta Rezustak irabazi zuten San Fermin txapelketa iaz, eta aurten jokatuako partida bakarria irabazi dute. Faboritoak dira finalera sailkatzeko, baita irabazteko ere.



Espainiako Txapelketan, txukun

Asier Pozo eta Beñat Carbayeda txirindulari lasarteoriatarrek lehiaketa ona egin dute asteburuan, Baños de Molgasen (Ourense). Euskadiko Selekzioak deituta parte hartu dute Espainiako Txapelketan. Ostiralean taldeko erlojupekoan aritu dira; brontzea kolokatu dute. Igandean, berriz, errepideko proban izan dira. Asier Pozok ihes egitea lortu eta brontzea kolokatu du.



Espainiako errugbi selekzioan

Beltzak taldeko Paola Vega (ezkerrekoa) Espainiako selekzioarekin egon da entrenatzen, Madrilgo Errendimendu Altuko Zentroan. Uztailaren 2tik 5era, Espainiako 15 eta 19 urte bitarteko 36 jokalaririk onenekin izan da.

Barruan duzun artista ateratzeko garaia da

Zatoz eta parte hartu SANTA ANAKO PARODIAN

Entseguak: Uztailaren 16tik 19ra eta 23tik 25era 18:30etik 20:30era

943 37 14 48
kultura@ttakun.eus

TTA KUN
Kultur Ekintza



Buruntzaldea IKTko lau igerilari infantilek (ezkerrean, berdez) lan bikaina egin zuten Euskal Herriko txapelketan. BURUNTZALDEA IKT

Europako txapelketan arituko da Nahia Zudaire

Espainiako Federazioak Nahia Zudaire lasarteoriatar gaztea sartu du Igeriketa Egokituko Europako Txapelketan aritzeko taldean. Bestalde, Buruntzaldea IKTko igerilari infantilak maila bikaina eman dute Galdakaon, Euskal Herriko txapelketan

Txintxarri

Nahia Zudaire igerilari gazteak Igeriketa Egokituko Europako Txapelketa jokatu du Dublinen (Irlanda), abuztuaren 13tik 19ra bitartean. Sekulako denboraldia egiten ari da; Espainiako Federazioak ez du izan zalantzarik, eta deialdian sartu du Zudaire. Hasiera batean sei probatan arituko da Buruntzaldea IKT taldeko igerilari gaztea: 50 m., 100 m. eta 400 m. librean, 100 m. bularrean, 200 m. metro lau estiloetan eta 100 m. tximeletan.

Oraindik oso gaztea den arren, esperientzia dezente dauka Zudairek nazioarte mailan. Denboraldi hasieran Portugal aldean egin zuen igeri, IWAS World Games txapelketan. Bartzelonan ere jokatu zuen nazioarteko txapelketa bat, eta Espainiako selekzioarekin bikain aritu zen Berlinen.

Asteburu emankorra Galdakaon
Buruntzaldea IKTko infantil mailako igerilariak Euskal

Herriko txapelketa bikaina osatu zuten Galdakaon, joan den asteburuan. Leire eta Ainhoa Martin ahizpek, Nerea Santosek eta Aintzane Sarobek hartu zuten parte Euskal Herrikoan, maila benetan ikusgarria erakutsiz: sei urrezko domina, zilarrezko bost eta brontzezko hamar kolokoratu dituzte. Horrekin nahikoa ez, eta taldeko bost errekor berri egin dituzte, Euskadiko bat, hamasei marka pertsonal berri eta Espainiako txapelketarako bi gutxieneko gehiago. Asteburu emankorra.

Aintzane Saroberen helburu nagusia Espainiako txapelketan aritzeko gutxieneko sorta handitzea zen. Eta baita lortu ere: 50 m. estiloak proban 26.68

SEI PROBA JOKATUKO DITU ZUDAIREK, DUBLINEN, ABUZTUAREN 13TIK 19RA BITARTEAN

segundoko denbora puska egin, eta gutxieneko poltsikoratu zuen. Espainiakoan hiru proba jokatu ditu: 50 m., 100 m. eta 200 m. librean, hain justu.

Ainhoa eta Leire Martin ahizpek erakustaldia eman zuten. Taldeak irabazitako sei urreak eurek kolokoratu zituzten; hiru Ainhoak (100 m. eta 200 m. lau estiloak probetan eta 100 m. bularrean), eta beste hiru Leirek (100 m. eta 200 m. bizkarrean eta 400 m. estiloetan). Zilarrezko bat ere irabazi zuen Leirek, 200 m. estiloak proban. Brontzekoak Aintzane Sarobek (200 m. bizkarrean) eta Nerea Santosek (800 m. librean) irabazi zituzten.

Individualki txapelketa bikaina egin dute lauek, eta taldeka ere bai: 4x200 m. libre erreleboan zilarra poltsikoratu zuten lau igerilariak; 4x100 m. librean eta 4x100 m. lau estiloetan, berriz, brontzezkoak. Azpimarratzekoa da baita ere Leire Martinek 200 m. bizkar proban egindako denbora: 2:16.54. Euskadiko errekor berria da.



Hondarribiako trainerua hirugarren da Euskotren Ligan . OARSOBIDASOKO HITZA

Bi hirugarren postu lortu ditu Hondarribiak Coruñaiko banderaren

Galizia aldean ibili da arraunean Intza Fernandez herritarra, Hondarribia traineruarekin, Euskotren ligan

Txintxarri

Ederki ekin dio denboraldiari Hondarribiak. Duela bi aste Euskotren liga jokatzeko sailkatu zen, San Juan, Orio eta Arraun Lagunak taldeekin batera. Onenekin ari da arraunean Intza Fernandez lasarteoriatarra. Galizian lehiatu zen pasa den asteburuan; Coruñaiko *Bandeira* zuten jokoan. Bi tandatan erabaki zen irabazlea: larunbatean zein igandean, meritu handiko bi hirugarren postu lortu ditu Hondarribiak. Ligako hirugarren postuan dago orain, zazpi punturekin.

San Juan izan zen bizkorrena bi tandetan, eta bandera irabazi zuen, merezimendu osoz. Liga hasiera ikusgarria egiten ari dira pasaitarrak; lautik lau proba poltsikoratu dituzte. Orio ere koxka bat gorago dago, baina San Juanen mailara iritsi gabe.

Eta, hirugarren postuarengatik borrokan, Hondarribia eta Arraun Lagunak.

Joan den asteburuan Ama Guadalupekoak egin zuen hirugarren, larunbat eta igandean. 12:22.21eko denbora egin zuen aurreneko tandan, eta 12:51.32koa bigarrenetan. Coruña bildutako puntuak poltsikoan, zazpi dituzte orain hondarribiarrek, eta sailkapen orokorrean aurrea hartu diote Arraun Lagunak talde donostiarrari.

Bihar, Donostiako uretan

Kaiarriba-Amenabar banderaren bigarren edizioa jokatu du bihar Hondarribiak. Azken estropadetako dinamika ona mantendu nahi dute: Arraun Lagunak aurretik geratu eta, zergatik ez, Orio eta San Juan trainerekiko denborak murriztu. Gaitasuna badute.

Maialen Chourraut, Munduko Kopako probako finalerdiatik at

Egungo txapeldun olinpikoak ezin izan zuten Munduko Kopako probako finala jokatu, pasa den asteburuan. Augsburgen (Alemania) aritu zen, K1 kategorian. Finalerdietan ondo zihoan, lehenengo puntuan denbora onena eginez, baina bi ate zeharkatu gabe utzi zituen, horietako bat proba amaitzear zegoela. Hori dela

eta, 29. postuan sailkatu zen, 102 segundoko denborarekin (ateak ez zeharkatzeagatik jasotako zigorren denborak gehituta), eta final handitik kanpo geratu. Munduko Kopako azken hiru probetako finalerdiatik kanpo geratu da piraguista herritarra.

Europako txapelketan laugarren geratu zenetik (ekainean lehiatu zen, Pragan), kostatzen ari zaio dinamika onean sartzea. Baina ziurra da gauza bat: ez du inola ere etsiko.

ZORION AGURRAK



Aroa
Zorionak printzesa! Sei muxe potxoloak aita, ama eta Oierren partez Asko Maite zaitugu!



Aimar
Zorionak bihotza, 4 urte dagoeneko!!! Asko maite zaitugu, zure gurasoak.



Oscar
Zorionak bollito! Egun polita pasa izana espero dugu! Besarkada handi bat, ondo ondo ospatu larunbatean!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu TXINTXARRI-ren bidez zoriortzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OHARRAK

Biyak Bat Durangora

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Durangora txangoa anatolatu du. Irteera uztailearen 19an izango da. Udala, Santa Ana plaza, San Agustinalde, Ezkurdi eta beste hainbat leku bisitatuko dituzte.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, aldiz, 45 euro.

Izena emate epea uztailearen 9an irekiko da. Elkarteko bulegoan egin behar da inskripzioa 10:30etik 12:30era.

Ura eta estolderiaren tasa

Zergadun guztiei jakinarazten zaie 2018. urteko lehenengo lauhilekoari dagokion Ura eta Estolderiaren Tasa ordaintzeko borondatezko epea 2018ko uztailearen 16an amaitzen dela.

Erreziboak helbideratu gabe duten herritarrek banku eta aurrezki kutxetan egin dezakete, baita udalaren web orrian ere (Zerbitzu telematikoak/nire ordainketa on line).

Helbideratutako erreziboak borondatezko epearen azken egunean kargatuko dira zergadun bakoitzak zehazturiko kontu korrantean.

Ordain gutuna jaso ez duenak,, beste aleren bat edota argibiderik behar duenak, Udaletxeko hirugarren solairuko Zergabilketa bulegora hurbildu daiteke, ala 943 376 187 telefono zenbakira deitu

Borondatezko epearen azken egunetik aurrera, ordaindu gabeko erreziboak dagokion errekaruarekin, premiamenduzko prozeduraren bitartez exijituko direla jakinarazten da.

Gazteentzat entsegu-lokalak

Lasarte-Oriako Udalak, herriko musika-taldee babesa emateko neurri gisa, haien esku jartzen ditu Gaztelekuan dauden entsegu-lokalak.

Lokal horiek erabili nahi dituztenek eskaera egin beharko dute idatziz, eta hor adieraziko dute entseguak zein egunetan eta ordutan egin nahi dituzten. Baita taldea osatzen duten kideen datuak ere. Eskaera udaleko erregistroan entregatu beharko dute hilaren 24a baino lehen. Bi entsegu-areto erabili ahalko dira 09:00etatik 24:00etara, astelehenetik igandera. Lehenetsuna dute 30 urtetik beherakoek.

JAIOTAKOAK

Alan Garcia Arriba. Uztailearen 5an.

HILDAKOAK

Maximino Castro Moro. Uztailearen 10an.
M.ª José Merino Valbuena. Uztailearen 10an.
Fernando Alzola Ocáriz. Uztailearen 6an.
Paquita González Rayego. Uztailearen 5an.
Salvador López Enríquez. Uztailearen 5an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 13 DE MIGUEL
Larunbata, 14 LASA
Igandea, 15 LASA
Astelehena, 16 GANDARIAS-URIBE
Astearte, 17 ACHA-ORBEA
Asteazkena, 18 LASA
Osteguna, 19 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK


UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

9	1		3	4	5			
		4	7	1	2			5
						1		4
	6	3					1	9
1			4				5	
		5		3	1	8		
		1					6	2
	4		2		9	3	7	1
7	2		1		3			

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Pisua alokatzen dut Pintore kalean. Barrualdera ematen du. Bigarren pisua da eta igogailua du. Bi logela, jangela-egondela eta komuna du. Berritua eta altzariz hornitua. 667 075 139.

Bi logela alokatzen dira partekatutako etxebizitza batean, Lasarte-Oria erdialdean. Neskak izatea nahi dugu. Interesa duenak deitu 666 320 520 telefonora.

ALOKAIRUAN HARTU

Logela bat bilatzen dut kontratu eta errolarekin. Telefonoa: 688 87 20 13

LANA

ESKAINZA

Zerbitzaria behar dute ilargi tabernan. Interesa duenak telefono honetara deitu dezala: 666 46 15 95.

SALEROSKETAK

SALDU

Motorra saltzen da. Piaggio ZIP 50 2T. Zuria

eta oso ondo zaindua. IATA martxoan pasata eta 25 urtetik beherakoek erabiltzeko segurua 2019ko apirilera arte ordainduta. 1000 euro. Harremanetarako: 610 953 258.

Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, kametik gabea. Interesatuak deitu


608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odrizola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Maialen Goikoetxea.

Informatikoa

Benat Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Oriako jaiak
Karmengo Amaren egunean, uztailaren 16an, Oria auzoko herritarrek jai handia antolatu dute. Adin guztietarako ekintzak egongo dira egun osoan zehar. Berrikuntza modura, toka lehiaketa izango da arratsaldean.
Oria auzoa, astelehena

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Antzerkia

Txapela buruan eta dantza munduan emanaldia eskainiko du Eidabe antzerki taldeak. Haur eta gaztetxoetan parrandarako gogoia zabalduta, jolaserako irudimena areagotu eta dantzatzeko grina sortzeko ikuskizun bizia da. Kale antzerkia bultzatuz ekimeneko ekintza.

Okendo plaza, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Tailerra

Txispas tailerra egingo dute. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza.

Elebeltz Topagunea, 18:30ean.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Tailerra

Etxeko txiki eta gaztetxoek aurpegiak margotzeko tailerrarekin gozatu ahaliko dute. *Udako tailerrak auzoetan* ekimenaren ekintza. Jaizkibel plaza, 11:30ean.

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Lur Usabiagak haurrei zuzendutako ipuin kontaketa egingo du, *udako tailerrak auzoetan* ekimenaren barruan. Zabaleta auzolan elkarteak lagunduta.

Zabaleta auzoa, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Zarautzen sortutako Pig&Kiss taldearen doinuez gozatu ahaliko da. Haien abestietan 70. hamarkadako

rock doinuak dira nagusi. *Kultur Kale Zikloko* kontzertua.

Atsobakar auzoa, 20:00etan.

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Bideoforum

Askekintza elkarteak egindako *Gurean* dokumentala eskainiko da eta honi buruzko eztabaida izango da.

Elebeltz Topagunea, 18:30ean.

USURBIL Dantza

Orbeldi D.T.-k antolatuta, Kolonbiako Creadanza Taldea, Poloniako Kostrazane taldea, eta Igorreko (Bizkaia) Arantzarte Dantza Taldea bilduko ditu hitzorduak. Kalez kale ibiliko dira lehenik, eta 13:00etan, saioa eskainiko dute frontoian.

Usurbil, 12:00etatik aurrera.

ASTELEHENA 16

LASARTE-ORIA Oriako Jaiak

Oriako babesle den Karmengo Amaren eguna ospatuko dute:

10:00etan, Lasarte-Oriako Ttirriki Ttarraka taldeko trikitixa doinuek alaituko dute auzoa. Buruhandiekin batera aterako dira.

11:00etan, aurpegi margotzeko tailerra. *Udako tailerrak auzoetan* ekimenaren ekintza.

12:00etan, Meza nagusia, Karmengo kaperan. Pilar Catalina sopranoak eta Gerardo Rifón organistak parte hartuko dute.

13:00etan, Luntxa, Plazido Mugika plaza.

13:00etan, Lur Usabiagak ipuin

kontaketa egingo du. *Udako tailerrak auzoetan* ekimenaren ekintza.

17:00etan, Gaztelu puzgarriak eta ur-pistola eta globo gerra, Brunet-eneako lorategia.

17:00etan, Oriako I. Toka txapelketa, Brunet-enea lorategia.

17:30ean, Haurrentzako askaria, Brunet-enea lorategia.

18:30ean, Oriako Sorgin dantza, Brunet-enea lorategia.

19:00etan, Zumba erakustaldia, Karmengo kaperatik Brunet-enea lorategira.

19:00etan, Ibai Berriak taldearen emanaldia, Brunet-enea lorategia.

Oriako auzoa, egun osoa

ASTEARTEA 17

LASARTE-ORIA Musika eskola

Musika eskola saioa izango da. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza.

Elebeltz Topagunea, 17:30ean.

ASTEAZKENA 18

LASARTE-ORIA Kontzertua

Lemon Twist taldeak pop-rock moldaketak eskainiko ditu bere emanaldian. *Kultur Kale Zikloko* kontzertua.

Okendo plazan, 20:00etan.

OSTEGUNA 19

USURBIL Kontzertua

Laboaren Uztaila bakarleri zikloaren 4. edizioan, Mikel Urakenen emanaldia.

Mikel Laboa plaza, 22:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

OKENDO PLAZA

La tortuga roja

Osteguna 19:
22:15.

USURBIL

URBIL

H. Transilvania

3: Unas

vacaciones

monstruosas

Ostirala:

16:00, 17:00,

18:05, 18:35,

19:15, 20:10,

21:30, 00:00.

Larunbata:

16:00, 17:00,

18:05, 18:35,

19:15, 20:10,

21:30, 00:00.

Igandea: 16:00,

17:00, 18:05,

18:35, 19:15,

20:10, 21:30.

El mejor verano

de mi vida

Ostirala: 16:10,

18:25, 20:45,

22:45, 00:50.

Larunbata: 16:10,

18:25, 20:45,

22:45, 00:50.

Igandea:

16:10, 18:25,

20:45, 22:45.

Ant-Man y la

Avispa

Ostirala:

16:50, 19:25,

22:00, 00:35.

Larunbata:

16:50, 19:25,

22:00, 00:35.

Igandea: 16:50,

19:25, 22:00.

La primera

purga: La noche

de las bestias

Ostirala: 16:00,

18:05, 20:25,

22:40, 00:50.

Larunbata: 16:00,

18:05, 20:25,

22:40, 00:50.

Igandea:

16:00, 18:05,

20:25, 22:40.

Jurassic World:

El reino caído

Ostirala:

16:30, 19:15,

22:00, 00:45.

Larunbata:

16:30, 19:15,

22:00, 00:45.

Igandea: 16:30,

19:15, 22:00.

Ocean's 8

Ostirala:

16:10, 20:10,

22:30, 00:45.

Larunbata:

16:10, 20:10,

22:30, 00:45.

Igandea: 16:10,

20:10, 22:30.

Hereditary

Ostirala: 00:45.

Larunbata: 00:45.

Campeones

Ostirala: 22:25.

Larunbata: 22:25.

Igandea: 22:25.


ASTIGARRAGA

FORU PLAZA

La suerte de los

Logan

Ostirala: 22:30.



LABURPENA

La tortuga roja

Zuzendaria: Michael Dudok de Wit. **Gidoilariak:** Michael Dudok de Wit eta Pascale Ferran. **Herr.:** Frantzia (2016). **Ekoizpena:** Why Not Pro / Wild Bunch / Studio Ghibli **Musika:** Laurent Perez del Mar. **Iraupena:** 80 minutu.

Naturari gorazarrea

La torga roja animaziozko filma Michael Dudok de Wit animatzailearen lehen film luzea da. Didok de Witen *Father and Daughter* film laburrak Oscar saria irabazi zuen 2001 urtean. Film mutua da eta musikak garrantzia handia du.

La torga roja itsasoan galdutako gizon baten istoria da. Irla tropikal batera iristen da eta bertan, dortokak, karramarroak eta txoriak besterik ez dira bizi. Arrotza egiten zaio lekua gizonari, guztia basatia da beretzat eta bertatik alde egin nahi du. Horretarako, kanaberazko ontzia egiten du. Baina itsasora ateratzen denean, dortoka gorri batek aurre egiten dio ontzia hondatuz. Irlara bueltatu eta gizakia

naturaren parte dela konturatuko da. Eguneroko abenturak hala nola, hondartzako karramarroak edo palmondoak aurkitzea berebizikoak izango dira beretzat. Eta ezusteko gertaera baten ondorioz, bere bizitza osoa irlan egitea erabakitzen du.

Hergé komikilariaren eragina nabari da film honen marrazkietan. Egile belgikarraren ligne claire estiloa nabarmena da, baita istorioan ere.

La torga roja Okendo Zinema taldeak Udalaren laguntzaz antolatzen duen Udako zinea zikloko emanaldia da. Euria eginez gero, eliztate plazako estalpean eskainiko da filma.

ELEKTRIZITATEA/
ELEKTRONIKA

MANTENTZE-LANAK/
ENERGIA

ADMINISTRAZIOA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA

MATRIKULA EPEA ZABALIK!

www.lhusurbil.eus

Goi eta
Erdi Mailako
ZIKLOAK

Lanerako
Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrikuntza
PROIEKTUAK

...

UZTAILA

ASTIRLENIA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUJA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Uztailaren 12tik 18ra



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

TXINTXARRIK PUBLIZISTA BEHAR DU

Aldizkariako komertzial lanak eta publizitatearen diseinua egin beharko ditu. Ttakun Kultur Elkarteko diseinu lanetaz ere arduratuko da.

- **Ezinbestekoa:** - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
- Publizitate, marketin edota diseinu arloko ikasketak.
- Photoshop, InDesign eta Illustrator menperatzea.
- Salmenta eta harremanetarako erraztasuna izatea.

- **Baloratuko da:** - Ekimendun pertsona izatea.
- Sare sozialen ezagutza. Community Manager ezagutzak.
- DFP ezagutzea.
- Lasarte-Oria ondo ezagutzea.
- Gidabaimena eta kotxea.

Curriculumak uztailaren 15era bitarte jasoko dira:
adrian@ttakun.eus
Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria

txintxarri



Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

%
des
kon
tua
30
EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

www.multioplicasgipuzkoa.com



MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan